

Año LVI. urtea

137 - 2024

Urtarrila-ekaina

Enero-junio



# FONTES LINGVÆ VASCONVM STVDIA ET DOCUMENTA

SEPARATA

---

Reseña.

*Mendebaleko Euskara*

*Zaharra: ezaugarriak,*

*kronologia eta geografia*

---

# Sumario / Aurkibidea

## Fontes Linguae Vasconum. Studia et Documenta

Año LVI. urtea - N.º 137. zk. - 2024

Urtarrila-ekaina / Enero-junio

### ARTIKULUAK / ARTÍCULOS / ARTICLES

Aproximación a la etimología de <i>Irulegi</i> y al origen del final <i>-legi</i> Patxi Salaberri Zaratiegi, Iker Salaberri Izko	9
The division of labour between the Basque articles in the indefinite domain Silvie Strauss	39
<i>Elze estalquia</i> y otras antiguas injurias vascas Josu M. Zulaika Hernández	69
<i>Gernikaren</i> ekfrasiak Harkaitz Canoren <i>Belarraren ahoan</i> Leire Iruretagoiena Goikoetxea	93
Etorkizuneko irakasleak eta euskara: identitate eta ikuspegi linguistikoak aztergai Mikel Gartziaarena	111
Memoriaren arrastoa euskal HGLn. <i>Gerrak ez du izenik</i> albumaren azterketa Amaia Serrano-Mariezkurrena, Ursula Luna, Nerea Permach, Berta Echeberria	137
Sudurkaritasun fonologikoa Larrainen: /h̃/ bai, baina bokalik ez Iñigo Urrestarazu-Porta, Andrea García-Covelo, Ander Egurtzegi	163
Euskal ondare lirikoaren berregitea Sarrionandiaren lanetan: herri-genero neurtuak Ane Arandia Morgaetxebarria	191

# Sumario / Aurkibidea

ERRESEINAK / RESEÑAS / REVIEWS 227

---

VARIA

Azentua eta hasperena: QED  
José Ignacio Hualde 235


---

Almadiak Zaraitzu eta Ezka ibaietan barrena XX. mendearen lehen erdian:  
euskarazko lekukotasunak  
Koldo Artola 243

---

Idazlanak aurkezteko arauak / Normas para la presentación de originales /  
Rules for the submission of originals 315

---



***Mendebaleko Euskara Zaharra: ezaugarriak, kronologia eta geografia*** (Iker, 47)

Eneko Zuloaga. 2022.

Euskaltzaindia; Euskal Herriko Unibertsitatea

358 or.

ISBN: 978-84-125463-6-1

Erreseina/Reseña/Review:

Oxel Uribe-Etxebarria

Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU

oxel.uribe-etxebarria@ehu.eus

<https://orcid.org/0000-0002-8795-1356>

DOI: <https://doi.org/10.35462/flv137.9>

*Mendebaleko Euskara Zaharra: ezaugarriak, kronologia eta geografia* liburua Eneko Zuloaga egilearen azken urteotako ikerketen emaitza oparoa da, Euskaltzaindiak eta Euskal Herriko Unibertsitateak elkarlanean argitaratua. Zuloaga UPV/EHUko irakaslea da Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketen Sailean eta bertan defendatu zuen doktorego-tesia 2020ko urtarrilean, Bikain *cum laude* kalifikaziodun doktore-tituluz gain, 2019/2020 ikasturteko doktorego-sari berezia eta Euskarazko Tesien VII. Koldo Mitxelena Saria eskuratzeko balio izan ziona. Ordurako, ordea, ikerketa-ibilbidea aspaldi abiatua zuen, liburu hau baino lehenagoko argitalpenek erakusten dutenez. Egileak liburuaren sarreran aitortzen du doktorego-tesiaren zati bat bildu duela liburuan, han ekindako bideari jarraitu baitio, edukia berrikusi eta zuzenduta, eta ikerketa berriekin osatuta. Hala, tesian fonetika-fonologiaren esparruaz esandakoak ezaugarri morfologikoen azterketarekin osatu ditu oraingoan, Euskal Herriko mendebal zabaleko (zein hedadura murriztagoko) ezaugarri dialektalen azterketa sakona eskaintzeko azkenik.

Hamaika ataletan banatuta aurkezten da liburuak, aurretik Zuloagaren tesi-zuzendari izan ziren Iñaki Caminoren eta Joseba A. Lakarraren hitzaurre banarekin. Sarreran (3.-5. or.) aztergaia zehazten da, hots, Lakarrak (2011) *Mendebaleko Euskara Zahar* izendatutakoa definitzeko, fonologiaren eta morfologiaren esparruko ezaugarri esanguratsuenak bilatzea, alde batetik, eta zatiketa lektalak noiz, nola gertatu ziren azaltzea, bestetik. Ohartarazpen bat egiten digu *mendebala* izendapenaz eta liburuan zehar erabiltzen dituen beste termino batzuez: zuhurtziaz baliatzen dira lan osoan zehar euskalkien edo garai bakoitzeko euskal hizkeren izenak eta, ahal dela, horiek baztertuta, geografia-izenak darabilta. Azken urteotan dialektologia diakronikoak euskal ikasketetan izan duen interes-gorakadarekin bat egiten du bete-betean, baina bigarren atalean (7.-30. or.) azaltzen digu zehatzago zeintzuk diren bere egiten dituen oinarri teorikoak eta lehenetsi dituen irizpide metodologikoak.

Argi dago dialektologia historikoaren esparruan kokatzen duela ikertzaileak bere lana eta hori islatzen da, esaterako, bere bi maisuren hitzak dakartzanean: gogorazten digunean (9. or.) diakronistentzat pleonasmu kutsua duela *dialektologia diakroniko* izendapenak (Lakarra, 2011, 158. or.) eta Caminoren (2008, 209. or.) «dialektologiaren dihardugunean kronologiaren jardun behar dugu baitezpada» baieztapena

berresten duenean (13. or.). Irakurleak –demagun jakintzagai horretan barneratu nahi duen ikertzaile hasiberri batek– nazioarteko lanez osatutako bibliografia ugaria aurkituko du «Jokoaren arauak» deituriko kapituluan. Hainbat kontzepturen gaineko azalpenak eta eztabaidak mahai gainean jartzen dira: hala nola, ikuspegi kualitatiboa hartzen duen dialektologoak nola egin behar lukeen isoglosen arteko hautaketa, isoglosa horien antzinatasuna aztertu beharra eta anakronismoetan jausteko arriskua, berrikuntza eta arkaismo kontzeptuen definizioa eta horien balioa sailkapen linguistikoak egiteko, edo hizkuntza-aldaketak eta zatiketak irudikatzeko ereduen berrikusketa.

Hirugarren kapitulua «Euskal dialektologia historikoaren ibilbidea» (31.-49. or.) da, Mitxelenaren ekarpenak mugarriz hartuta, haren aurreko eta osteko garaiak hizpide hartzen dituena. Mitxelenak (1981) Euskara Batu Zaharra proposatu zuenetik, azken hamarkadetan euskalkien zatiketei buruzko ezagutzan egin diren aurrerapenak eta, bereziki, mendebaleko euskararen zatiketaz egin diren proposamenak laburbiltzen dira.

Laugarren atalean (51.-64. or.) lanerako corpora finkatzen da eta adierazten digu zeintzuk diren iraganeko hizkuntza-aldiak aztertzeko informazio-iturri nagusiak, bai eta idatzizko testu edo material horiek dituzten mugak ere. Eskuragarri ditugun mendebal zabaleko testuak eta dauden hutsuneak aipatzen ditu: Bizkaiko lekukotasunez aritzean kasu, gogorarazten digu XIX. mendekoak direla hala Arratiako, nola Lea-Artibai inguruko lehenengo testu luzexkak (57. or.); deigarri zait datua, eskualde bi horietakoak direlako gero *bizkaiera klasikoaren* ordezkari bihurtu diren idazle nagusiak. Erabilitako testuak zerrendatzen dituenean (60.-64. or.), bai eta hurrengo ataletan ere, lurralde-banaketa erabiltzen du, sarreran esan bezala: esate baterako, Deba ibarreko testu zaharrak Gipuzkoako testuen artean aipatzen ditu eta, horrela, nahita saihesten du gehienetan *Gipuzkoako bizkaiera, arabera, mendebaleko euskararen sortaldeko azpieuskalkia* edo antzeko beste izendapenak erabili beharra. Kronologikoki ordenatuta daude Euskara Arkaikotik hasi eta 1800 ingurura arteko testuak, ikerketarako lanabes nagusiak, baina ez dira falta, han-hemen, liburuan zehar Erdi Aroko euskarari edo Euskara Modernoari egindako erreferentziak ere.

Hizkuntza-ezaugarrien azterketa § 5, § 6, § 7 eta § 8n dator eta horixe da lanaren zati trinkoena, baina liburuaren egiturak aukera ematen dio irakurle artegari nahi izanez gero liburu atzeko aurrera irakurtzeko ere, Zuloagak liburuaren aurkezpenean gomendatu zuen bezala; hau da, ondorioetatik hasi (§ 11), datuen interpretaziora igaro (§ 9 eta § 10), eta testuetatik bildutako ezaugarriak azkenerako utziz.

Bosgarren atalean biltzen direnak «Balio sailkatzaile urriko ezaugarriak» (65.-80. or.) dira eta baztergarriz jotzen dira «ez dituztelako gainditzen § 2n ezarritako langa teoriko-metodologikoak» (65. or.). Hor eztabaidatzen dira *barri & berri, baltz & beltz, (h)uri & (h)iri* bezalako aldaera lexikoak eta hasperenaren galera.

Seigarrenean «Mendebaleko Euskara Zaharraren ezaugarri pasibo bateratzaileak» (81.-114. or.) ditugu, hau da, arkaismo edo gordetako ezaugarri batzuk, zeharka bada ere eremu bat mugatzeko balio dezaketenak. Ezaugarri pasibo deritze beste eremu batzuetan, hau da, Euskal Herriko erdialde edo ekialdean gertatutako berrikuntzen ondoriozkoak

direlako, baina, era berean, bateratzaile dira mendebalean hedadura zabala dutelako. Morfologiako lau ezaugarri aztertzen dira atal honetan. Ergatibo pluralaren markak (-ak vs -ek) bitan banatzen du Euskal Herria eta, kasu honetan, forma bien banaketa diatopikoa testuz testu eta eskualdez eskualde aztertu ondoren, Manterolarekin (2015) bat egiten du egileak, ekialdeko sistema berriagotzat joaz, hau da, pluraleko absolutiboaren eta ergatiboaren arteko bereizketa (ipar-)ekialdean gertatutako berrikuntza baten ondorio dela iritzirik. Morfosintaxiaren esparruan, aditzetako -(a)n & -(e)n eta -(a)la & -(e)la menderagailuen erabilera da hautatutako beste ezaugarri bat, aurreko ezaugarriaren antzeko banaketa geografikoa duena erdi-mendebalean. Kronologiari begira, mendebaleko -a-dun aldaerak ere arkaismotzat jotzen dira azken urteotako proposamenei (Ariztimuño, 2013) jarraituz. Aditzetan, \**edunen* forma jokatuena berri ematen zaigu: hirugarren pertsonako adizkietan diptongoa gorde izana Mendebaleko Euskara Zaharraren ezaugarri pasiboa izan litekeen arren, bat etortzea ez da erabatekoa kasu honetan, -au- eta -eu- erako adizkiekin batera -u- forma monoptongatuak ere aurki daitezkeelako Arabako eta Gipuzkoako zenbait testutan. Azkenik, *ha* ‘hura’ erakuslearen hedadura ere ez da hain zabala, erakusten zaigunez: bereziki Bizkaia gordetzaille izan da historikoki, baina kontuan hartzen dira hala hegoalderago eta erdialderago agertzen hasten diren beselako aldaerak (*oa*, *ura* eta *aura*), nola absolutiboaz kanpoko (*h)a-* eta (*h)ar-* formak ere.

Zazpigarren kapituluan biltzen diren «Hedadura zabaleko berrikuntza zaharrak» (115.-183. or.) dira «Mendebaleko Euskara Zaharraren oinarri edo zutabe nagusiak» (115. or.), mota horretako ezaugarri linguistikoak bilatzen baitira idealiki filiazio dialektalen froga gisa. Bost dira hor aurkezten diren berrikuntzak, ez guztiak garrantzi edo esanahi berekoak. Lehenengoa *a + a > ea* disimilazio morfonologikoa da; zehatz aztertzen da bokal igotzea zein testuingurutan gertatzen den eta zein murriztapen dituen arauak, aurretik ikertzaileek esandakoak kontrastatuz, eta kronologia zehazten da: «beraz, zentzuzkoa da pentsatzea disimilazioa *post VIII.* eta *ante XI.* mendeak sortutako berrikuntza dela» (118. or.). Eredu zabalean eta sistematikotasunez aurkitzen ditu Zuloagak erdi-mendebaleko testuetan lekukotasunak.

Datibo pluraleko -ai / -ei marken banaketa ergatibo pluralekoenarekin lotu izan den arren, egiazki, datiboko -ai berrikuntzat jotzen da, *aei* batetik eratorria (Mantrola, 2015), eta delako berrikuntza Bizkaia, Araba zein Gipuzkoako zati handi batera hedatu bide zen. Beharbada zailagoa da ablatiboko -*rean* kasu markaren geografia zehaztea, garai batean orokorra izandakoa, testu askotan ihartua ageri delako eta azkenik eskualde askotan erabat galdu delako, baina berrikuntzat du Zuloagak hori ere eta bereziki mendebaleko eremu zabala bateratzen duela nabarmentzen du.

Mailegu modernoetako -*adu* & -*idu* partizipio markak mendebaleko lehenengo testuetan agertzen dira dagoeneko, nahiz eta ez duten indar bera lurralde guztietan. Fenomeno hori jatorrian multifokala izan litekeela iruditzen zaio egileari edo ez behintzat Gasteiz izan zenik ezaugarri honentzat foku hedatzailea. Berrikuntza zaharretan azkena [partizipioa + *egin*] perifrasi da, edo bestela esanda, *egin* aditz laguntzailearen gramatikalizazioa. Mendebaleko Euskara Zaharraren berrikuntza esanguratsutzat jotzen da, baina ez geruzarik zaharrenean kokatu beharrekoa, hedadura eta eremu bakoitzean duen indarra aintzat hartuta.

«Hedadura murrizagoko berrikuntzak» izeneko atalean (185.-248. or.) Mendebaleko Euskara Zaharraren barruan gertatu diren hausturak irudikatzen dituzten ezaugarri zenbait (9 zehazki) hautatu eta aztertu dira; aurreko atalekoak baino berrikiago gertatutakoak, beraz. Horietako batzuk azaltzeko esan daiteke aurretik aipatutako fenomeno bat muturrerago eraman dutela hizkera batzuetan, hala nola,  $a + a > ea$  disimilazioa *izan*, *joan* eta *eroanen* adizkietan, lehenengo testuetarik agertzen dena, baina izenetako disimilazioa baino eremu txikiagoan. Zuloagak ikusi du Bizkaian duela indar handiena ezaugarri horrek eta, gainera, Bilbo inguruko iturrietan are hedatuago ageri dela. Antzekoa da *j* bokalerdiaren ondoko txistukarien palatalizazioaz dakarren ondorioa: Arabako eta Bizkaiko mendebalean dagoela inon baino indartsuago. Polita da, gainera, ikustea toponimo batzuen lekukotasunetan XI.-XII. mendeen eta XIII.-XIV. mendeen artean gertatzen den aldaketa ikusgai jartzen duelako: kasu baterako, Gasteiztik hurbil, *Harizavalleta* (1025), *Harizaballeta* (1135), *Harechavaleta* (1258), *Arechavaleta* (1352), *Harrachavaleta* (1381) (Salaberri Zaratiegi, 2015, s.v. *Aretxabaleta*). Toponimiaz kanpo, hitzez hitz aztertzen ditu aldaerak, guztien hedadura ez delako bat bera eta testuen gaiagatik hitz jakin batzuk agertzeko aukera gehiago daudelako.

Jarraian, erakusleen pluraleko formak azaltzen dira, bi azpiataletan banatuta: 1. eta 2. graduko erakusleak (*hon-* eta *hor-* erakoak) eta 3. gradukoa (mendebaleko *(h)aeik* & *(h)aiiek* aldaera bisilaboak). Mendebaleko euskararen bereizgarri nagusietakoen artean aipatu izan den ezaugarria da komitatiboko *-gaz* marka; egileari zentzuzkoena begitantzzen zaio berrikuntza hori Bizkaiko sartaldean sortu zela pentsatzea, eremu hartan baitu indar handiena, non pluralera ere hedatu den, *-akaz* aldaera sortuta.

Hurrengo bi ezaugarriek hedadura are murrizagoa dutela ematen du, hurbiltze-adlatiboko *-rantz(a)* markak eta *-txu* atzizki txikigarriak, Bizkaitik kanpo nekez aurkitzen baitira.

Aditzaren morfologiaren esparruan, \**edunen* orainaldiko 1. eta 2. pertsonetako adizkiei begiratzen zaie ondoren. Hirugarren pertsonan ez bezala, diptongoa soilduta (*-o-*) ikusten dugu *bizkaiera* modernoan, baina Bonapartek aurkitutako egoera ez dator bat iraganekoarekin, lekukotasun zaharretan ez baitago erabateko batasunik: agerian uzten da, eremua eta garaia zein den, *-eu-*, *-o-*, *-e-* eta *-u-* ere aurki daitezkeela; monoptongazioak, beraz, berankorrek dira mendebalean. Adizki hirupertsonaletan, alde batetik, \**edutsi* aditz-laguntzailearen hedadura aztertzen da, ez dena mendebaleko iturri guztietan bakarra eta sistematikoa, eta bestetik, *jagin* & *jakin* laguntzaileak, dirudienez askoz ere eremu txikiagoan erabili izan direnak, inon ere erabat nagusitzera iritsi gabe. Nolanahi ere, aditzera ematen digu ez bata eta ez bestea ezin direla mendebaleko geruza zaharreneko berrikuntzak izan.

Bederatzigarren atalean (249.-267. or.) hasten da aurreko ataletan bildutako eta landutako datu guztien irakurketa, lehenengo kronologia-gaiei erreparatuz. Berrikuntzatzat jotako ezaugarri linguistikoko guztiak datatzen saiatzen da egilea, noiz sortu eta hedatu ziren, azken batean Mendebaleko Euskara Zaharra deiturikoaren garaia ere zehazteko, Euskara Batu Zaharretik Euskara Arkaikoraino doan tartean. Ezaugarri batzuk zuzenean dokumentatzen dira Erdi Aroan eta zuzenean dokumentatu gabeko berrikuntzetan,

aldiz, bestelako argumentuak erabili behar ditu kronologia erlatiboak finkatzeko: dela euskaraz edo erromantzez Erdi Aroan gertatutako beste fenomeno batzuen kronologiak muga bezala erabiltzea, dela sistematikotasunaren eta hedaduraren irizpideei jarraitzea. Horrela, hiru geruza kronologiko nagusi ezartzen ditu Zuloagak (258. or.): 1) X. mendearen inguruan kokatzen du Mendebaleko Euskara Zaharra delakoaren sorrera, *-a < ha* gramatikalizazioaren eta horren gainean eraikitako kasu-sistema mugatuaren datatik abiatuta; 2) XII.-XIV. mendeen artean kokatzen du hurrengo geruza, Mendebaleko Euskara Zaharraren barnean lehenengo zatiketak gertatzen hasten direnekoa; eta 3) azken geruzan kokatzen ditu eremu edo hizkera jakin bati lotutako berrikuntzak edo hedadura murriztena iritsi direnak, modernoagoak nolahi ere.

Liburuaren hamargarren atalean (269.-318. or.) geografiaren ikuspegitik irakurtzen dira datuak, hau da, berrikuntzen fokuek edo sorlekuak eta difusio-ereduak proposatzen dira. Berrikuntza zaharrenean sorlekutzat Gasteiz edo Arabako Lautada dauka egileak, baina ez da horretara mugatzen, eta kritiko da azken aldiko joera batzuekin: «Oro har, sorlekua aurkitu (uste) izanak sorleku horietara bideratu du ikertzaileen arreta bete-betean, baina ezaugarrien hedadurari buruzko proposamenek ez lukete sorlekuan bakarrik oinarritu behar» (316. or.). Berrikuntza horiek Erdi Aroan nola hedatu ziren azaltzeko, uhinen teoria klasikotik haratago, Bergsen (2006) *bidez bideko difusio* ereduak erabiltzen du. Arabako bide-sare nagusiak kontuan hartuta, posible ikusten du berrikuntza zaharrenean hedadura zabala ulertzea. Uste du lehenengo foku horren eraginpean luzaroan egon zirela egungo Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa mendebaleko zenbait ibar eta, ondoren, XIII.-XIV. mendeetako geroztik, hiribilduen fundazioak sendotu zuela sarea. Garai hartarako, ordea, Bizkaian beste berrikuntza-foku bat ikusten du Zuloagak eta horrela azaltzen ditu Mendebaleko Euskara Zaharraren barne-zatiketak. Bilboko euskararen bazterreko izaeraren aurka agertzen da eta erakusten du inondik heldutako berrikuntzak hartzeaz gain, horrelakoak zein bertan sortutakoak hedatzeko indarra izan zuela Erdi Aroan.

Hamaikagarren kapituluko ondorioek (319.-326. or.) borobiltzen dute lana. Liburuak Mendebaleko Euskara Zaharraren ezaugarri esanguratsuen azterketa sakona eta horietan oinarritutako proposamenak eskaintzen ditu. Euskal Herriko mendebalean, X. eta XIV.-XV. mendeen artean makrodialekto bat berreraikitzen da, bizkaiera, gipuzkera eta arabera euskalki modernoan aurrekaria izan litekeena. Gainera, hiru aldi kronologiko bereizten dira, bakoitza zenbait hizkuntza-berrikuntza eta hedadura jakin batekin lotutakoa. XII. eta XIV. mendeen artean izandako dinamika-aldaketa esanguratsuak ere nabarmentzen dira. Gainera, azken atal honetan mendebaleko hizkuntza-panoraman hiru eremuri jartzen zaie arreta (323. or.), horietan biltzen diren isoglosengatik (intereseko eremuak lau direla esaten den arren, esango nuke jarraian hiru besterik ez direla aipatzen): Deba ibarra lehenik, Arabako ipar-mendebala bigarrenik eta Arabako sortaldeko eremua hirugarrenik.

Nabarmendu nahi nuke liburuan zehar erakusten den corpusaren ezagutza sakona eta iturri ezberdinetako testuen erabilera. Sumatzen da laugarren atalean aldarrikatzen den filologia zehatza (52. or.) dagoela atzean eta aurretik editatutako testuen jatorrizko iturrietara ere jo dela: adibidez, *Misererean* Akesolok (1982) *altararen* ordez *altura*



transkribatu zuela seinalatzen da (121. or.), Etxebarriak (2007) argitaratutako 1708ko sermoian ere transkripzio-akats batzuk markatzen dira (122. or., 74. oin-oharra), komitatiboko eta instrumentaleko markak direla eta Landucciren testua berrikusten da (219.-221. or.) eta abar.

Liburuak dakartzan hainbat arrazoiketa eta baieztapenek –eta hemen zerrendatzen saiatu gara horietako batzuk– ondorio nabarmenak dituzte ikergaiarentzat eta, beraz, zeresana emango dute oraindik datozen urteetan. Ezinbesteko abiapuntu bat izango da mendebaleko hizkeren inguruko edozein ikerketa egin nahi duenarentzat. Liburuaren bukaeran (324. or.) aipatzen da oraindik ez garela gai «euskal dialektologia diakronikoaren azken urteotako galdera nagusietako bati» erantzuteko, hau da, Euskara Batu Zaharra nondik zatitu ote zen lehenengo. Edozelan ere, horrelako ikerketa gehiagok hurbilago jarriko gaituzte galdera horri eta beste batzuei erantzutetik. Halaber, bat egi-ten dut egilearekin erdialdeko eta ekialdeko euskarez antzeko ikerketak ikusteko desira adierazten duenean (325. or.).

## ERREFERENTZIAK

- Akesolo, L. (1982). Amaseigarren mendeko euskerazko «miserere» bat. *Karmel*, 166, 37-47.
- Aritzimuño, B. (2013). Euskal aditz jokatuaren osaeraz eta jatorriaz zenbait ohar. In R. Gómez, J. Gorrotxategi, J.A. Lakarra & C. Mounole (arg.), *Koldo Mitxelena Katedraren III. Biltzarra* (41.-60. or.). UPV/EHU.
- Bergs, A. (2006). Spreading the word: patterns of diffusion in historical dialectology. In M. Filppula, E. Penttilä, J. Klemola & M. Palander (arg.), *Topics in dialectal variation: selection of papers from the Eleventh International Conference on Methods in Dialectology* (5.-30. or.). University of Joensuu.
- Camino, I. (2008). Dialektologiaren alderdi kronologikoaz. *Fontes Linguae Vasconum*, 108, 209-247. <https://doi.org/10.35462/flv108.1>
- Etxebarria, N. (2007). 1708ko eskuizkribu argitaratubakoa bizkaieraz: edizinoa eta hizkerearen azterketea. *Euskalingua*, 11, 67-94.
- Lakarra, J.A. (2011). Gogoetak euskal dialektologia diakronikoaz: Euskara Batu Zaharra berreraiki beharraz eta haren banaketaren ikerketaz. In I. Epelde (arg.), *Euskal dialektologia: lehena eta oraina* (155.-241. or.). UPV/EHU.
- Manterola, J. (2015). *Euskararen morfologia historikorako: Artikuluak eta erakusleak*. [Doktore-tesia, UPV/EHU]. ADDI. <http://hdl.handle.net/10810/15848>.
- Mitxelena, K. (1981). Lengua común y dialectos vascos. *ASJU*, 15(1), 289-313.
- Salaberri Zaratiegi, P. (2015). *Araba / Álava: Los nombres de nuestros pueblos*. Euskaltzaindia.